

1911KO IRAULTZA TXINATAR  
HISTORIALARIEN LANETAN:  
BERRIKUSPEN HISTORIOGRAFIKOA  
(1911-2018)

Gradua: Historia

Ikasturtea: 2018-2019

Ikaslea: Zeyi Chen

GrAL-aren zuzendaria: Unai Belaustegi

## LABURPENA

Lan honen aztergaia Txinako Xinhai edo 1911ko Iraultzaren historiografia da. Lau ataletan banatuta dago. Lehenengo atal gisarako sarrera labur baten ondoren, bigarren atalean, 1911 eta 2011 bitarteko bilakaera historiografikoa ezagutzera emango da. Ondoren, hirugarren atalean, lanaren mami gisa, bost fase historiografikotatik, lau fase nagusietako bakoitza eta azken urteetako (2012-2018) lanak berrikusiko dira. Bukatzeko, laugarren atalean, ondorioak aterako dira, hain zuzen, aztergai honek bilakaera historiografiko konplexua jaso duela justifikatzen dutenak.

Gako-hitzak: 1911ko Iraultza, Txinako historiografia, materialismoa, historia soziala

## ABSTRACT

The subject of the present work is the historiograph of China's Xinhai or Revolution of 1911. Following a brief introduction as the first part, the second part will inform the historiographical development between 1911 and 2011. Then, the third part, as the crux of the work, will review each one of the four main historiographical phases from the five and the works of the last years (2012-2018). Finally, the fourth part will draw the conclusions which exactly justify that this subject has had a complex historiographical development.

Keywords: Revolution of 1911, Chinese historiograph, materialism, social history

## AURKIBIDEA

1. SARRERA .....	3
2. 1911KO IRAULTZAREN ANALISI HISTORIOGRAFIKOA (1911-2011) .....	4
3. 1911KO IRAULTZAREN BERRIKUSPEN HISTORIOGRAFIKOA (1911-2018) .....	10
3.1. Lehen fase historiografikoa (1911-1949) .....	11
3.2. Bigarren fase historiografikoa (1949-1966) .....	15
3.3. Laugarren fase historiografikoa (1977-1989/1991) .....	18
3.4. Bosgarren fase historiografikoa (1989/1991tik) .....	21
3.5. Azken urteetako lanak (2012-2018) .....	22
4. ONDORIOAK .....	24
BIBLIOGRAFIA .....	26

## 1. SARRERA

1911ko Iraultza gertaera historiko garrantzitsu bat da Txinako historian, errepublikanismo modernoa praktikan jartzearen hasiera eragin baitzuen, lehendabiziko errepublika (1912-1949) ekarriz. Hala ere, horren historiografiaren berri erlatiboki gutxi ezagutzen da txineraz eta ingelesezkoak ez diren lanetan, are gutxiago gazteleraz edo euskarazkoetan.

Lan honek helburu bikoitza du: Txina kontinentaleko historialariek 1911ko Iraultzaren inguruan egin dituzten analisi historiografikoen berri ematea eta berrikuspen historiografiko kritikoa egitea. Helburu horiek betetzen saiatzeko, hastean, orain arte argitaratutako analisi historiografiko nagusietan oinarrituta, 1911ko Iraultzaren ikerketen bilakaera historiografikoa laburtuko dugu. Ondoren, jarrera kritikoa oinarrituta, 1911tik aurrerako garai ezberdinetan idatzitako lan nabarmenetako batzuk berrikusiko ditugu. Halaber, berrikuspenik berrienak 2011ra arteko lanak hartzen du kontuan; hortaz, 2012 eta 2018 bitartekoak ere berrikusi beharko dira. Berrogeita hamar bat lan kontuan hartu dira. Gehienbat aldizkari akademikoetan kaleratu diren artikuluak dira, liburuak lortzeko zailtasuna baitago. Lan osoan zehar ikusiko den bezala, testuinguru politikoek eragin handia izan dezakete, emakumezkoen historia erlatiboki gutxi lantzen da, eta, 1911ko Iraultzaren bilakaera historiografikoa orain arte berrikuspenak egin dituzten historialariek uste dutena baino konplexuagoa izan daiteke.

## 2. 1911KO IRAULTZAREN ANALISI HISTORIOGRAFIKOA (1911-2011)

1911ko Iraultza Txinako modernizazio eta atzerritar inperialismoaren testuinguruan ulertu behar da. Bigarren Opi Gerra (1856-1860) galduz gero, Qing dinastiaren gobernu inperialak Autoindartze-mugimendua (1861-1895) bultzatu zuen, probintziei ekonomia industrialak eta armada garatzeko askatasuna emanaz. 1900ko hamarkadan, monarkia konstituzionala ezartzeko kanpainia abiarazi zuen.

Aldi berean, atzerrian zeuden ikasle txinatarrek aberriaren krisia ikusi eta irtenbideak bilatu zituzten. Sun Yat-sen (1866-1925), Huang Xing (1874-1916), Song Jiaoren (1882-1913) eta abarrek, prentsaren bitartez, mantxuriarren aurkako errepublikanismoa ezaguterazi zieten txinatarrei. Sunek, gainera, Herriaren Hiru Printzipioak (sozialismoa, demokrazia eta nazionalismoa) garatu zituen bere politologia gisa.

Iraultzaileek, elkarrekin, hala nola, Sunek sortutako Txina Berpizteko Elkarte (1894tik) eta Aliantza Iraultzailearen (1905etik) izenean, hainbat altxamendu saiakera egin zuten, guztiak porrot egin zirelarik. 1911an, Wuchang-eko Altxamendu arraskatatsuen ondoren, aurrez autonomia eskuratutako probintziek independentzia aldarrikatu zuten. Nanjing-en, iraultzaileak eta probintzietako ordezkariak bildu ziren. 1912an, Sunek Txinako Errepublika aldarrikatu zuen, Behin-behineko Gobernu antolatuz. Gobernu inperialak Yuan Shikairi iraultzaileak zapaltzeko agindu zion. Hala ere, Sunek, Errepublikako presidentetzaren truke, Yuanen aldeotasuna irabazi zuen, Txinako bi mila urteko garai inperialari amaiera emanaz.

Gertakari historiko konplexu horien idazketaren historiari erreparatuta, historialari askok (Zhang, 1999; Yan eta Ma, 2000) bost fase historiografikotan banatzen dute<sup>1</sup>. Lehenengo fasea komunistek boterea hartu (1949) baino lehenagoko garaiari atxikitzen diote, iraultzaileek memoria bezalako lan ugari idatzi zutela eta ikerketaren hastapena

<sup>1</sup> Aipagarria da, historialari batzuek (adibidez, Zhang, 1999) ez dute 1966 eta 1976 bitarteko geldialdi akademikoa fase bat bezala hartu, hutsune bat izango balitz bezala baizik; ondorioz, bost fasetako banaketaren orde, lau fasetakoa egin dute. Beste historialari batzuek (hala nola, Cui, 2015), aldiz, geldialdi hori fase bat bezala kontsideratzen hartzen dute, bost fasetako banaketa ondorioztatuz. Lan honetan, bigarren kasua hartzen da eredu gisa.

agertu zela esanez. Bigarren fasea komunistek boterea hartuz (1949) gero eta Iraultza Kulturala hasi (1966) baino lehenago kokatzen dute, hain zuzen, historiografia marxistaren hazkundearen garaian. Hirugarren fasea Iraultza Kulturalari (1966-1976) dagokio, hau da, geldialdi akademikoari. Laugarren fasea 1977an hasitako ikerketen berreskurapen eta hazkundearen garaia zen. 1989 edo 1991tik, hazkundera gelditu egin zela eta aldaketa argiak antzematen dituztenez, bosgarren eta azken fasetzat hartzen dute.

Aipatu bezala, iraultzaren ondorengo garai zabala (1911-1949) lehenengo fasetzat hartzen dute. 1920ko hamarkada eta lehenagoko lanetan, adibidez, Su Sheng-ek Wuchangeko Altxamendua amaitu bezain laster (1911) egindako *Txinako Iraultzaren historia* liburuan, gertaeraren nondik norakoa baino ez da azaltzen. Antzekotasun gisa, iraultzako parte-hartzaileek memoria bezalako lanak idatzi zituzten. Bestalde, idazle batzuk gobernu inperialaren aldekoak ziren. Hala nola, Shang Binghe-k<sup>2</sup>, 1924an argitaratutako *1911-1912ko historia* lanean, iraultzarekiko jarrera ezezkorra adierazi zuen (Zhang, 1999: 223).

1928tik, Kuomintang-ek Txinako batasun politikoa lortu zuen garaian, Yan eta Mak (2000: 137) esan bezala, ikuspegi historiko ortodoxoari jarraituz, alderdi horren aurrekari Txina Berpizteko Elkarte eta lider Sun erdigune bezala kokatutako historiaren idazketa bultzatu zuen, bere legitimitate politikoa justifikatzeko<sup>3</sup>. Ondorioz, protagonista ortodoxo horiek ez ziren elementuetan oinarritutako lanak baztertzen saiatzen zen<sup>4</sup>.

1930ko hamarkadaren amaieran, ikerlariak 1911ko Iraultza ikuspegi marxistatik aztertzen hasi ziren. Mao Zedong-ek bere *Txinako Iraultza eta Txinako Alderdi Komunista* lanean iraultza demokratiko burgestzat hartu zuen. Hu Shen-en *Inperialismoa eta Txinako politika* lanaren arabera, atzerriko inperialistek 1911ko Iraultzan esku hartu zuten eta horren bitartez inbasioa areagotu nahi izan zuten. Idazle

<sup>2</sup>Shang Binghe (1870-1950), hezkuntza konfuziano tradizionala jasotako filosofo eta historialaria zen.

<sup>3</sup>Izan ere, 1911ko Iraultzan parte hartu izandako elkarrekin (Txina Berpizteko Elkarte nagusi) osatu zuten Kuomintang.

<sup>4</sup>Hala nola, Cao Yabok *Wuchangeko Iraultzaren benetako historia* lanean Rizhi Elkarteak iraultzari egindako ekarpenak nabarmendu zituenez, Guomindangek debekatu egin zuen.

hauek, Kuomindangekoek bezala, interes politikoa zuten: marxismoa zabaltzea.

Laburbilduz, 1949 baino lehen Xinhaiko Iraultzako ikerketen oinarriak eratzeko garai bat zen. Hau da, iturrien oinarria eta metodoaren oinarria sortu ziren garai hartan. Alde batetik, iraultzaileek idatzitako memoriak lehen mailako iturriak izango ziren etorkizuneko ikerketentzat. Eta bestetik, marxismoa historia aztertzeke marko teoriko gisa agertu zen eta, lehendabiziko aldiz, 1911ko Iraultza zientifikoki aztertu zen (Yan eta Ma, 2000: 138).

1949an, errejimen berria zela-eta, historialari askok ihes egin zuen Txina kontinentaletik, historialari berriak nabarmenteraziz eta bigarren fase historiografikoa (1949-1966) abiaraziz. Hamazazpi urte hauetan, berrogeita hamar bat liburu, hogeita hamar bat iturri eta bostehun bat artikulua argitaratu ziren (Cui, 2015: 135). 1956an Sunen jaiotzaren 90. urteurrenaren oroitzapenerako konferentzia ospatu zen, Xinhaiko Iraultza eta lider horren inguruko ikerketak bultzatuz. Burgesiari buruzko lanak ere agertu ziren, hala nola, Hu Shenwuren *Txinako demokrata burgesen sorrerari buruz* lanean Errusiako 1905eko Iraultzak Txinako burgesengana izandako eraginak aztertzen ziren. Hala ere, 1957tik, iritzi eskuindar edo antikomunista izan zezaketen intelektualen aurkako mugimendu soziopolitikoa zela-eta, ikerketa eten egin zen.

1961ean, Xinhaiko Iraultzaren 50. urteurrenaren oroitzapenerako konferentzia akademikoa<sup>5</sup> ospatu zen, ikerketen berpiztea bultzatuz (Yan eta Ma, 2000: 138). Zhang Kaiyuan-ek (1999: 226) alderaketa historiografikoa egin du, 1949 baino lehenagokoari “historiografia tradizionala” izendatuz. Izan ere, 1949 baino lehen egindako lanak gertaera politikoetan enfokatutakoak ziren, “gizarteko klase borrokaren esentzia” baztertuta. 1949 ondoren egindakoek, aldiz, testuinguru ekonomikoa eta klaseen arteko harremanari garrantzia eman zieten, 1911ko Iraultza Qing amaierako gatazka sozialaren ondorio zela defendatuz.

Halaber, iraultzaren izaera anti-mantxuriarrari dagokionez, Yan eta Maren (2000: 139) arabera, 1949 baino lehenagoko historialariek arrazen arteko gatazka bezala

<sup>5</sup>1961eko konferentzia akademikoan, etorkizunean nabarmenduko ziren historialari berriak agertu ziren, Hu Shengwu, Jin Chongji, Zhang Kaiyuan eta Lin Zengping barne.

interpretatzen zuten; eta 1949ren ondorengoek, berriz, atzerritar inperialismo eta Txinako sistema feudalaren aurkako mugimendu burges eta demokratiko bezala. Gainera, nekazariak ere protagonista gisa agertu ziren lan batzuetan, non iraultzan izandako parte-hartzea aurkitzen saiatzen ziren. Aipagarria da ere, iraultzaile garrantzitsuen klasea eta pentsamendu politikoetaz aztertzen zirela, baita nekazarien lurrei buruz zuten pentsamenduaz ere.

1966 eta 1976 bitartean, Iraultza Kulturalagatik, akademia ororen geldialdia izan zen. 1966an, Sunen jaiotzaren 100. urteurrena bazen ere, oroitzapenerako hiru hitzaldi politiko eta egunkariko artikulua bi baino ez ziren kaleratu. 1971 eta 1976 bitartean, 1911ko Iraultzaren 60. urteurrenak bultzatuta, hogeita bat liburu eta hirurogeita hamar bat artikulua argitaratu ziren. Artikulu ez akademiko horietan orduko konfuzionismoaren eta legalismoaren arteko talka politikoaren isla nabarmendu zen. Maoren jarraitzaileen arabera, konfuzionistak tradizioa itzultzearen alde zeuden; eta legalistak, berriz, aurrerapenaren alde. Maoistak legalismoaren alde egin zuten, konfuzionismoa gogor kritikatu. Testuinguru honetan, politikariek Xinhaiko Iraultza konfuzionismoaren aurkako mugimendu legalista bezala interpretatu zuten (Cui, 2015: 135).

1977an, irekiera ekonomikoarekin batera, zientzia sozialen jardura akademikoak berrezartzen hasi ziren. Xinhaiko Iraultzaren ikerketen hirugarren fase hau (1977-1989/1991), historialariek, Cui (2015: 136) eta Zhangek (1999: 227) barne, ikerketen berreskurapen eta izugarritzko hazkundearen garai bezala kontsideratzen dute, batez ere argitalpen ugari zegoelako. Lehenengoak emandako datuen arabera, gero eta artikulua gehiago argitaratu ziren: 1977an 16 artikulua, 1978an 22, 1979an 57, 1980an 156. 1981an, hain zuzen, iraultzaren 70. urteurrenaren oroitzapenerako konferentzia akademikoak nazio zein probintzia mailan ospatu ziren urtean, 1200 artikulua baino gehiago jaso ziren. Hamalau urte dinamiko hauetan, guztira 200 liburu<sup>6</sup> eta 6000 artikulua baino gehiago kaleratu ziren<sup>7</sup>.

<sup>6</sup>Lan horien artean, Zhang Kaiyuane eta Lin Zengpingek (1980-1981) aditatutako *Xinhaiko Iraultzaren historia* aipatu behar da, hiru liburuk osatutako bilduma.

<sup>7</sup>1981z gero, kaleratutako artikuluen kopuruari dagokionez, ikerketen egonkortasuna agertu zen, 1982 eta 1991 bitartean, urtean batez bestez 450 artikulua argitaratu zirelarik.



Fase honen ezaugarri nabarmenei dagokienez, lehenik, historialari indibidualen ordean, ikerketa historikorako erakundeak eta institutuak sortu ziren, Sun eta Xinhaiko Iraultza ikergai espezifiko zituztenak barne, hala nola, Xinhaiko Iraultzaren Historiaren Ikerketa Taldea (1978) eta Zhongshan Unibertsitateko Sun Yat-sen Institutua (1986). Bigarrenik, 1911ko Iraultzak, nazio mailan izan ezik, probintzia ezberdinetan izandako historiaz aztertu zen. Hirugarrenik, atzerritar jatorriko iturriak, Japonia eta Erresuma Batuko dokumentu diplomatiko ofizialak eta nazioarteko kazetarien apunteak barne, Txinan sartu eta itzuli ziren, Txina eta nazioarteko harremanak (adibidez, inperialisten esku-hartzea) aztertzeko erraztuko zituztenak. Laugarrenik, Sunek pertsonaia historiko gisa garrantzia izaten jarraitu arren, beste pertsonaiak, esaterako, Huang Xing, Qiu Jin, Song Jiaoren eta Zhang Jian<sup>8</sup>, ere sakon aztertzen ziren. Bosgarrenik eta azkenik, historialari atzerritarren, batez ere estatubatuarren lan ugari itzultzen hasi zen; esaterako, Joseph W. Esherick-enak eta Harold Zvi-Schifferrin-enak (Yan eta Ma, 2000: 140).

Halaber, Zhangen (1999: 235-236) arabera, beste bi ekarpen egin ziren hirugarren fase honetan. Alde batetik, 1980ko hamarkadako Sukar Kulturalaren kontestuan, 1911ko Iraultzaren garaiko aniztasun ideologiko eta kulturala erakutsi zen. Adibidez, Sunen teoria, Herriaren Hiru Printzipioak izan ezik, nazionalismoa, anarkismoa eta sozialismoa ere bihurtu ziren aztergai. Eta bestetik, atzerritarren lanen sarrerari esker, interpretazioak ugaritu ziren: iraultza burgesa (Txina kontinental eta zenbait japoniarren arabera), iraultza nazionala (taiandarren arabera) eta elite sozial edo intelektualen mugimendua (mendebaldekoen arabera).

Xinhaiko Iraultzaren ikerketen bosgarren eta azken fase historiografikoan, hau da, 1989 edo 1991tik, lanen kopuruari erreparatuta, ikerketak behera egiten hasi ziren<sup>9</sup>. Izan ere, 1992 eta 2011 bitartean urtean 200 artikulua argitaratu ziren batez beste, kontuan izanda 1982 eta 1991 bitartean kopuru hori 450 zela (Cui, 2015). Gainera, aztergaiak ere aldatu ziren, gero azalduko den bezala. Hala ere, Zhangen (1999: 238-239) ustez, jarrera

<sup>8</sup>1986an, Zhang Jianei buruzko Lehen Nazioarteko Mintegia antolatu zen.

<sup>9</sup>Cuiren (2015: 135) datuen arabera, 1992 eta 2011 bitartean, urtean batez besteko artikuluen kopurua gutxi gorabehera 200 zen.

positiboa hartuta, ez da beherakada, baizik eta historialari txinatarrek beste modu batean aztertzen zutela 1911ko Iraultza, testuinguru historiko zabalagoetan, esaterako, talde sozial ezberdinen garapenean integratuz. Zhangei jarraituz, Yan eta Mak (2000: 151) historia sozialaren hazkundera zela defendatu zuten, historia politikoaren partzialtasunetik historia sozialaren osotasun edo orokortasunera eta, indibiduoak aztertzenetik taldeak aztertzerara igarotzen ari zirela argudiatuz. Azpimarratu behar da, baita ere, Zhang eta Tian (2010: 91-92) ohartu ziren bezala, 2000ko hamarkadan, 1911ko Iraultzan burgesek izandako parte-hartzea zalantzan jarri, Sun burgesen ordezkari zela eta 1911ko Iraultza iraultza burgesa zelako tesiaren aurkako argudioak agertu zirela; eta tesi horren ordez interpretapen berriak azaldu ziren, hala nola, iraultza demokratiko eta nazionalista, baina ez burgesa.

Cuik (2015: 135-136) beste bi aldaketa historiografiko aipatu ditu. Lehenik, merkatarien elkarteak nabarmendu ziren aztergai gisa. Adibidez, Zhu Ying-ek zenbait aldiz aztertu zituen<sup>10</sup> iraultzaren testuinguruko merkatarien elkarteak eta hauek abiapuntutzat harturik, Txina modernoko Estatuaren eta gizartearen arteko harremana ulertzen saiatu zen. Zhang eta Tianek (2010: 90) azaldu dutenez, “Estatu-gizartea” mendebaldetik 1990ko hamarkadaren erdialdean iritsitako marko teoriko bat da; Txinako historialariek marko hori hartu zuten eta gizarte zibilaren esparruak (prentsa, ikasleen elkarteak eta eskolak barne) aztertzen hasi ziren. Eta bigarrenik, Xinhaiko Iraultza osteko historia aztertzen hasi zen. Alde batetik, iraultzak Txinako politikaren modernizazioan eta garapen sozial eta kulturalean izandako eraginak bihurtu ziren aztergai nabarmenak. Beste aldetik, Historia posmodernoaren eraginez, ondorengoek iraultzako gertaera eta pertsonaia nagusien irudia nola eraiki zituzten aztertzen ziren. Hala nola, Chen Yunxiren lanean (2009), *Mirespena eta memoria: Sun Yat-senen sinboloren egituraketa eta hedapena* artikuluan, 1911ko Iraultzaren ondoren Kuomindangek, bere legitimitatea justifikatzeko, Sunenganako mirespena -Presidentea Oroitzeko Astea eta abar zirela medio- nola eraiki zuen aztertzen da.

<sup>10</sup>1991an, 1997an eta 2001an

Bukatzeko, aipagarria da, 1990 eta 2000ko hamarkadetako ezaugarri horiek hurrengoaren hasieran, 2011an, hain zuzen, iraultzaren 100. urteurrenean ere aurkitu daitezkeela. Izan ere, Sun Fang-ek <sup>11</sup> (2013) egindako berrikuspenaren arabera, iraultzaren testuinguruan hezkuntzalaritzak, zientzia politikoak, diplomaziak <sup>12</sup>, zuzenbideak, literaturak eta emakumeek<sup>13</sup> izandako garapenak aztertu ziren.

### 3. 1911KO IRAULTZAREN BERRIKUSPEN HISTORIOGRAFIKOA (1911-2018)

Bigarren atalean orain arte txinatar historialariek Xinhaiko Iraultzaren inguruan egindako analisi historiografiko nagusiak ikusi ditugu. Jarraian, haien arabeko bilakaera historiografikoa kritikoki kontuan hartuta, 1911 eta 2018 bitartean argitaratutako lanak berrikusiko ditugu. Gero azalduko den bezala, aurreko atalean azalduko analisi horien zenbait gabezi ohar daiteke. Lehenik, 1949 baino lehenagoko lanen berrikuspen erlatiboki gutxi egin da. Bigarrenik, 1949 baino lehen Kuomindangek sustatutako Historia ortodoxoa gaitzeztu arren, ez dute kritikatu 1949tik komunistek Historiaren akademian izandako esku-hartzea. Hirugarrenik eta azkenik, 1980ko hamarkadaren hasieratik emakumeen historiaren ikerketaren hazkundera dela kontuan hartuta, berrikuspenak egin dituzten historialariek horretaz lerro gutxi batzuk baino ez dituzte idatzi.

Analisi horiek osatzeko, atal honetan ehun urteetan zehar (1911-2011) argitaratutako liburuen eta artikuluen bildumetan <sup>14</sup> agertutako eta kontuan

<sup>11</sup>Sun Fang (1976-), zuzenbidean eta zientzia politiko historikoan aditu den emakumezkoa da.

<sup>12</sup>1980ko hamarkadan bezala, 2000ko hamarkadan ere diplomaziari buruzko iturriak sartu ziren Japonia eta Erresuma Batutik.

<sup>13</sup>Txinako lehendabiziko mugimendu femenista 1911ko Iraultzaren garaian kokatu ohi da.

<sup>14</sup>Liburuen bilduma hurrengo hau da: 海峡两岸出版交流中心, 华中师范大学中国近代史研究所, 2011: 海峡两岸辛亥革命著述书目: 1911-2011, 北京: 九州出版社 [Taiwango Itsastartearen Bi Aldeetako Argitalpenen Inguruko Elkarrizketarako Zentroa, Institute of Modern Chinese History (Central China Normal University) (2011): *Taiwango Itsastartearen bi aldeetan argitaratutako Xinhaiko Iraultzari buruzko liburu nabarmenen zerrenda: 1911-2011*, Beijing: Jiuzhou Press]; eta artikuluen, berriz, hau: 金冲及 (2011): 辛亥革命研究论文集 (上下), 北京: 生活·读书·新知三联书店 [Jin, Chongji (2011): *Xinhaiko Iraultzaren ikerketaren artikuluen bilduma (I-II)*, Beijing: SDX Joint Publishing Company]. Biak 1911ko Iraultzaren 100. urteurrena ospatzeko egin dira.

hartu gabeko lan batzuk hartuko ditugu, hamar bat lan fase historiografiko bakoitzeko. Osagarri bezala, orain arte berrikusi gabeko argitalpen berrienak, hau da, 2012 eta 2018 bitarteko batzuk ere kontuan hartuko dira.

### 3.1. Lehen fase historiografikoa (1911-1949)

Lehen fase historiografikotzat hartutako garaiko lanak erlatiboki gutxi aztertu dira. Yan eta Mak (2000), Zhangek (1999) bezala, 1949 baino lehenagoko lanez bi orrialdetako ezaugarri orokorrak baino ez dituzte idatzi. 1911 eta 1949 bitarteko testuinguru historiko luze eta ezegonkorrek garaiko lanak baldintzatuko zituzten, autoreek herriaren batasuna bilatzea bultzatuz eta Txinak mundu garaikidearekin zuen harreman berriaz pentsaterazi.

Hasteko, aipatutako liburuen bildumaren arabera, iraultza amaitu bezain laster, mugimendu horretan eta aurretiko altxamenduetan (batez ere 1911ko Guangzhouko Altxamendua<sup>15</sup>) parte hartu zutenak memoriak argitaratzen hasi ziren, hala nola, Su Yuren *1911ko negar-malkoaren zipriztintzearen historiak* (1912) eta Tian Xiaosheng-en *Huanghuagang-eko hamar martirio iraultzaile fujiandarren erregistroa* (1913). Izenburuek diotenez, hildako iraultzaileen ekarpenak goraiatu zituzten. Idatzizko oroimen hauek ekitaldi ofizialei lotuta zeuden; esaterako, azken lan hori 1913an Guangzhouko Altxamenduko 72 Martirio Iraultzaileak oroitzeko ospatu zen ekitaldiagatik<sup>16</sup> (Guangzhou Museum, 2006:144) izango litzateke.

1919an, Senatuko presidente Lin Sen-ek eta Sunek, 72 Martirio Iraultzaileen hilerriaren erreforma sustatu zuen, atzerriko txinatarren diru-laguntzak eskatuz. Haien helburua ez zen propaganda politikoa egitea, adiskideen gorpuak hobeto kontserbatzea baizik, haientzat lagun begirunetsuak baitziren; izan ere, Linek ere parte hartu izan zuten Sunen

<sup>15</sup> Guangzhou (Kanton) hirian izandako altxamendu honi Huanghuagang-eko Altxamendua ere deitzen zaio. 1911ko apirilean Huang Xin-ek burutu zuen. Azkenean porrot egin zuen. Eta hildako 80 iraultzaile baino gehiagotik 72 gorpu identifikatu ziren (Luo, 1996: 13).

<sup>16</sup>Guangdong probintziako ekitaldia izan zen.

mugimendu iraultzaileetan (Lin, 2001: 96 eta 259). Urte berean, Linek *Odol garbiko krisantemoen historiak* idatzi zuen, eta helburua oroitzea izango litzateke.

1920ko hamarkadan, oroimen saminak egiten jarraitu zuten, nahiz eta, Zhangek (1999: 222) esan bezala, azalezko informazio historikoak baino ez zituzten eskaini. Hurrengo bi adibide daukagu: Hu Hanmin-en (1922) *Herriaren Hiru Printzipioak defendatzen dituztenen eginbeharrak* eta Gao Laoren (1925) *Xinhaiko Iraultzaren historia*.

Interesgarria da aipatzea, Gaok (1925: 1-2) iraultza nazioarteko fenomeno politiko komuntzat hartu zuela, Turkiako gazteen iraultza (1908), Portugalgo estatu-golpea (1910) eta abarreko adibideak aipatuz. Antzekotasun gisa, politologo Lin Guipuren (1939) *Estatua Sun Yat-sen jaunaren pentsamenduan* lanean, Sunen arabera estatuaren ontologiak ziharduen, mendebaldeko politologiaren teoriak <sup>17</sup> Sunen teoriekin konparatuz. Bi autore hauek Txina munduarekin parekatu zuten, 1880 baino lehenagoko “Txina benetako zibilizazio bakarra” zelako pentsakera politikoarekin kontrastatuz.

Memoriak 1930ko hamarkadan ere kaleratu ziren, orain bai, propaganda politikoa egiteko asmoz. 1936an, Luanzhouko Altxamenduaren 25. urteurrenean, altxamendu horretan parte hartu izandako Shi Jingting-ek (1936) *1911ko Luanzhouko Altxamenduaren erregistroa* liburuxka idatzi zuen. Hamazazpi kapituluaren artean, azken hirurak memoriak ziren, altxamendu horretatik bizirik atera zirenek Guomindangen Iparralderako Espedizioan (1926-1928) ere parte hartu zutela aipatuz. Bestalde, espedizio horren etsai militarrik kritikatu zituen, orduko ezegonkortasunaren erantzuletzat hartuz:

*Yuan Shikaik boterea eskuratu zuen, nazioa kaltetuz. Ondorioz, gerrako*

<sup>17</sup>Haien artean, antzinako Greziako filosofo Platon-ena eta Aristoteles-ena.

*jaunak agertu ziren, hamazazpigarren urtean [1928] Iparralderako Espedizioa arraskatatsu atera arte, monstu guztiak ezabaturik. Iparraldeko Txinako militarrek iraultzaileei laguntzen zieten beti; haietako gehienak Luanzhouko Altxamendutik bizirik atera ziren adiskideak ziren. Nazioaren hazkundeagatik orain arte borrokatu dira, Luanzhouko Iraultzaren espiritua ere hilezina delarik (Shi, 1936: 39).*

Hortaz, 1928ra arte, iraultzaileei buruzko lanen ezaugarrietako bat helburu memorialekoa zen, propaganda politikorik gabekoa. Data horretatik aurrera, memorialaren helburuaz gain, Historia ortodoxoko bultzapenarena ere gehitu zen.

Bigarrenik, 1928tik bultzatutako Historia ortodoxoari dagokionez, 1911ko Iraultzaren ikerketak berrikusi dituzten historialari gehienek (adibidez, Zhang, 1999: 222; Yan eta Ma, 2000: 137) Kuomindangen gobernantzaren legitimitatea justifikatzeko zela argudiatu zuten. Hala ere, Txinako testuinguru politikoa kontuan harturik, justifikazio hori egiteko arrazoia aurkitu daiteke, hurrengo paragrafoan azalduko den bezala.

1911ko Wuchangeko Altxamenduaren ondoren, gobernu inperialarengandik independentzia aldarrikatu zuten probintziak buruzagi berri bat bilatzen hasi ziren. Huang Xingengana hurbildu ziren, baina honek uko egin zien, Aliantza Iraultzaileko presidente Sun errejimen berriaren buru izan beharko zela argudiatuz. Arrazoen artean, Bakearen Estatu Zerutiarraren (1851-1864)<sup>18</sup> porrota barneko buruzagien talka zela eta Sunekin lehiatu nahi ez zuela esan zuen. Geroago, gobernu errepublikarraren antolaketari zegokionez, Song Jiaoren parlamentuaren nagusitasunaren alde agertu zen; eta Sun, berriz, presidentetzaren nagusitasunaren alde. Huang ere

<sup>18</sup>Hong Xiuquan-ek (1814-1864), Kristautasunaren indibiduen arteko berdintasunaren ideologia jasanez gero, lurjabeen eta mantxuriarren zapalkuntzaren aurka altxatu zen Txinako hegoaldeko landa-eremuko nekazariekin eta intelektual gutxi batzuekin, herrialde dinastiko propioa (Bakearen Estatu Zerutiarra) sortuz. Hala ere, lidergotzaren inguruko eztabaida eta mantxuriarren zapalkuntza zirela-eta, porrot egin zuten.

Songen aurka agertu zen, eztabaida ez egitea gomendatuz (Guo, 2011: 29-30). Beraz, probintziek zein Huangek, lider finko bat nahi zuten, iraultza aurrera eramateko eta barneko batasuna mantentzeko. Eta lider finko hori Sun izango zen. Hau 1925ean hil ondoren ere, 1928an boterean agertu zen Kuomindangek Sunen buruzagitza gogorarazten jarraitu zuen, Historia ordotoxoaren idazketa bultzatuz. Yanek eta Mak (2000: 137) azaltzen duten bezala, legitimitate politikoa justifikatzeko zen. Hala ere, litekeena da, 1912ko errepublika eratzeke erabilitako irizpidea -barneko batasuna mantentzea- berriro hartu izana. Izan ere, 1928ko gobernu berria Txinako barneko gatazkaren<sup>19</sup> amaieraren ondoren sortu zen. Kuomindangek irudi popular baten inguruan herriaren batasuna eraiki behar zuen, eta irudi hori 1912ko errepublikako aintzindari Sun izango litzateke berriro.

Hirugarrenik eta azkenik, garai honetan Sunen pentsamenduaz ziharzuten lanetako batzuk beste ezegonkortasunaren testuinguru batean, hain zuzen, japoniarren inbasioaren aurkako gerraren (1937-1945) testuinguruan aurkitzen ziren eta, sentimendu nazionalista pizteko asmoz idatzi zituzten. Sunen ideologia horren inguruko hainbat artikulu bildu zituen Liu Binglik (1940) *Herriaren Hiru Printzipioak eta Txinako Iraultza* liburuxkan. Gerra bukatuz gero, Sunen teoria, Herriaren Hiru Printzipioak aztertzen jarraitu zuten, 1945ean gerratik atera berri zen nazioaren politikaren oinarria izan beharko zela defendatuz.

Beraz, aurreko atalean aipatutako berriskuskatzaile historiografikoak ez dira 1911 eta 1949 bitarteko garai luze eta gorabeheratsuan egindako lanen<sup>20</sup> konplexutasunetaz ohartu. Gutxienez hiru ezaugarri gehiago gehitu behar dira. Lehenik, 1911 eta 1928ren artean 1911ko iraultzaileek beraiek

<sup>19</sup>Lehen azaldu bezala, 1916an presidente Yuan Shikai hil ostean, Txina gerrako jaunen artean zatikatu zen. 1926 eta 1928 bitarteko Iparralderako Espedizioari esker, Kuomindangek Txinako batasuna lortu zuen.

<sup>20</sup>Hala ere, ukalezina da, garai honetako lanek oraindik izaera akademiko ahula dutela, hau da, gehienek (esaterako, iraultzaileek beraiek idatzitakoek) ez dute inolako oinarri bibliografikorik; nahiz eta batzuk (esaterako idazle marxistak) metodologia akademikoetan oinarritzen hasi ziren.

idatzitako lanek, azaleko informazioa eskaintzea baino, hildako adiskideen inguruko oroimena egitea eta haien ekarpenak adostea zituzten helburu, asmo politikorik gabe. Bigarrenik, 1928tik sustatutako Historia ortodoxoarekin, gobernuaren legitimitateaz gain, barne-egonkortasuna ere eratu nahi izan zuten. Hortaz, Sun eta bere ideologiaren irudi popularra hiru aldiz erabili izan ziren, hiru talketatik bizirik ateratako errejimena sendotzeko: 1911ko Iraultzatik, gerrako jaunen zatiketa bukatuz (1928) gero, eta, japoniarren aurkako gerratik (1945). Hirugarrenik eta azkenik, idazle batzuek Txina nazioarteko testuinguru politikoan kokatzen zuten, iraultza fenomeno globaltzat hartuz eta Sunek mendebaldeko politologiaren eragina izan zuela defendatuz. Izan ere, gutxinenez 1880ko hamarkadara arte, txinatar boteredunek zeruaren azpiko zibilizazio goiena zela uste izan zuten. Mendebaldeko potentzien ahalmen militarra ikusirik, harrituta geratu ziren. Hortaz, txinatar intelektualak munduarekiko zuten harreman berriaz pentsatzen hasi ziren.

### 3.2. Bigarren fase historiografikoa (1949-1966)

Komunistek boterea hartu ondoren (1949) eta zientzia sozialen geldialdi akademikoa hasi baino lehen (1966), Xinhaiko Iraultzaren ikerketen bigarren fasetzat hartutako garai honetan, historiografia marxistaren bultzapen ofiziala eman zen<sup>21</sup>. Eta gutxienez hiru ezaugarri gehigarri zeuden, bigarren atalean ikusitako bilakaera historiografikoan aipatu ez direnak: lehenik, aztergaien eta metodoaren jarraipena; bigarrenik, mendearen hasierako ideologiaren aniztasuna erakustea; azkenik, kapitalismo inperialistaren gaitzeztea.

1949tik historialariak aldatu arren, Xinhaiko Iraultzaren ikerlariak 1949 baino lehenagoko gai nabarmenak aztertzen jarraitu zituzten, hain zuzen, Sun

<sup>21</sup> Materialismoa, Historiaren metodo zientifiko bezala, monopolio bihurtu zen unibertsitateetako irakaskuntzan eta ikerketan.



eta bere ideologia eta txinatar emigranteak. Esaterako, Zhen Hesheng-ek (1954) *Sun Yat-senen ideologiaren garapenaren bideari buruzko analisiaren saiakera* artikuluan, Sunen pentsamenduen inguruko ikerketaz ziharzuen; eta Li Guang-ek (1957), berriz, *Txinatar langile eta burges inmigranteen egoera Xinhaiko Iraultza baino lehen eta Xinhaiko Iraultzaren mugimenduari egindako ekarpenak* artikuluan atzerrian zeuden txinatarren parte-hartzeaz.

Halaber, 1911ko Iraultza aztertzeko metodo gisa, materialismoan oinarritutako lanak ugaritu ziren, 1930ko hamarkadaren amaieratik ageri zirenei jarraituz <sup>22</sup> . Esaterako, Hu Shenwuk (1955) *Txinako burges iraultzaile demokratikoen sorrera* artikuluan, eta He Yuchouk (1959) *Xinhaiko Iraultza eta burges konstituziozaleak* artikuluan, 1911ko iraultzaileak burgesak zirela defendatzen zuen tesia zuzentzat hartu zuten, haien benetako izaera zalantzan jarri gabe. Ondorioz, 1911ko Iraultza burges demokratena zela defendatzen zuen tesia oro onartuta zegoen. Eta, nekazarien parte-hartzeari zegokionez, aldiz, historialari batzuek bai jarri zuten zalantzan:

*1895ean iraultzaile burgesak borroka armatua hasiz geroztik, 1911an herrialde osoan iraultzaren goieneko unea amaitu arte, ebidentzia anitzek erakusten dutenez, iraultzaile burgesek elkarte sekretuen bitartez mobilizatutako herritarren artean, mertzenarioak, [...] egoitza finkorik gabeko herritarrak ziren ohikoak. Elkarte sekretuen bitartez nekazariak mobilizatu izan zituztela justifikatzeko informazio gutxi aurkitzen da. Beraz, Xinhaiko Iraultzaren garaiko Tiandi Elkartea nekazarien edo nekazariez nagusituriko erakundetzat hartzen dutela eta, iraultzaileek elkarte bitartez nekazariekin harremanetan jarri izan zutelako iritziak zalantzarriak izan daitezke (Lin, 1962: 46).*

Adibide hauetatik 1949 baino lehen eta ondorengo ikerlarien artean bi jarraikortasun zeudela ondoriozta daiteke. Alde batetik, aztergaien jarraipena zegoen, hain zuzen, 1928tik Sun eta bere pentsamenduak aztergai biziak bezala hartzen ziren. Eta bestetik, ikuspegi marxistarena, hau da, 1930ko hamarkadaren amaieratik hartutakoa. Hortaz, 1949 baino lehen eta geroko lanak bi fase historiografikotan

<sup>22</sup>Hau da, ideologia marxistan oinarrituta 1911ko Iraultza aztertzen dituzten lanak 1930ko hamarkadaren amaiera eta 1949 bitartean agertzen hasi ziren eta 1949 ondoren gailendu ziren.

banatzen direlako tesia zalantzarria da, bien arteko jarraikortasuna oso argia baita. Egia da, hala ere, gobernu komunistaren agerpenarekin batera marxismoa historia aztertzeko marko teoriko nagusi bihurtu zela. Zentzu honetatik, komunistek ere beraien araberrako historia ordotoxoaren idazketa bultzatu zutela esan dezakegu, Kuomindangek 1928tik egiten zuen bezala.

Bigarrenik, Sunez gain, garaiko beste intelektualen ideologiak testuinguru ezberdinetan izandako bilakaera ere aztertzen zuten. Xiao Shanyin-ek (1963)<sup>23</sup> emakumezko iraultzaile eta olerkari Qiu Jinen lanak aztertu zituen, demokrazia burgesaren eta emakumeen askatasunaren gogoazuela esanez. Shen Pengnian-ek<sup>24</sup> (1963: 19-20) Lu Xun-en<sup>25</sup> literatur lanak aztertu zituen, idazle hori hasieran Sunen eboluzionismo sozial eta indibidualtasunaren alde zegoela, baina 1919tik marxismoaren hedapenaren testuinguruan sozialista bihurtzen hasi zela ondorioztatuz. Eta, Zhao Jinyuk (1964: 46) Zhang Binlin pentsalariak iraultzaren testuinguruan zituen jarrera nazionalista burgesa eta demokrata zela argitu zuen. Beraz, 1960ko hamarkadako analisi hauek mendearen hasieran egondako ideologiaren aniztasunaren adibideak ziren, feminismoa, indibidualtasuna eta nazionalismoa barne. Hala ere, betiere marko teoriko marxistan kokatzen zuten, iraultza komunista baino lehenagoko iraultza burgesaren testuinguruan zeudelako tesitik abiatuta.

Hirugarrenik eta azkenik, Xinhaiko Iraultzaren testuinguruari zegokionez, autoreek erabiltzen zituzten testuinguruaren artean, atzerritar inperialismoarena askotan aipatzen da. Mendebaldeko potentziek zuten interes ekonomiko zein politikoa aipatu eta iraultzaileek haiekiko zituzten jarrerak aztertzen zituzten, atzerritar inperialismoa gaitzestuz. Chen Guizong-ek (1956: 49) ipar-ekialdeko hiru probintzietako<sup>26</sup> iraultza baino

<sup>23</sup>Hau Txinako literatura modernoaren historian aditu da.

<sup>24</sup>Hau ere Txinako literatura modernoaren historian aditu da.

<sup>25</sup>Lu Xun (1881-1936) Txinako garai ezegonkorrean bizi zen idazle eta kritikari bat zen.

<sup>26</sup>Ipa-ekialdeko hiru probintziak Heilongjiang, Jilin eta Liaoning-ei egiten zaie erreferentzia, hain zuzen,

lehenagoko egoeren berri eman zuen. Kanpo-politikari zegokionez, Qing dinastiak errusiarrei eta japoniarrei bertan ustiapen industrialia gauzatzeko baimena eman zuela eta, aldi berean, barne-politikari erreparatuta, zerga berriak zirela medio, nekazarien eta langileenganako zapalkuntza ekonomikoa ezarri zuela argudiatu zituen. Nian Lizik (1962: 3-4) inperialista ingelesek, frantsesek, japoniarrek eta, batez ere alemaniarrek, Shandong probintziako natur- zein giza-baliabide merkeak “lapurtu”, manufakturak inportatu eta, landa-eremuari produktuak eta lan-eskuak “kendu” bitartez, nekazarien pobrezia areagotu zutela argudiatu zituen, kapitalismoaren zapalkuntza kritikatu. Halaber, Chen-ek, Caik eta Yang-ek (1962: 93-95) Fujian probintziako mugimendu iraultzailearen emaitza porrota zela eta, horren arrazoiak japoniar inperialisten<sup>27</sup> zapalkuntza ekonomikoaz ez ohartzea eta nekazarien<sup>28</sup> laguntza ez izatea izan zirela argudiatu zuen.

Beraz, autore hauek 1911ko Iraultza mendebaldekoen kapitalismo inperialistaren testuinguruan kokatzen zuten. Qing dinastia atzerritar potentziek Txinan zapalkuntza kapitalista gauzatu ahal izateko bitartekari edo tresnatzat jo zuten, etorkizuneko nekazari eta langileen iraultza komunistaren jatorria testuinguru honetan aurkitzen zelako irudia emanez<sup>29</sup>.

### 3.3 Laugarren fase historiografikoa (1977-1989/1991)

Hirugarren fase historiografikotzat hartutako garaia (1966-1976) hutsune akademikoari egiten zaio erreferentzia. Izan ere, tarte kronologiko horretan izandako Iraultza Kulturalaren testuinguruan, Maok, akademia, hezkuntza eta prentsa bezala, burgesek kontrolatuta zegoela eta proletarioen

iraultzaren garaiko Mantxuriari. Hala ere, artikulu honetan, Txinako parte bat bezala konsideratzen da.

<sup>27</sup>Japoniak Taiwan ohartea okupatu zuen 1895 eta 1945 bitartean, eta Fujian hortik hurbilen zegoen Txina kontinentaleko kostaldea zen.

<sup>28</sup>Komunisten arabera, nekazariak populazio osoaren ehuneko handiena okupatzen zuten, mugimendu iraultzaileetan laguntza handiena eskaini zezaketen.

<sup>29</sup>Izan ere, bazeuden ere 1911ko Iraultzaren testuinguruko langile mugimendua aztertzen zutenak; esate baterako, Li, Shiyue, 1957: Xinhaiko Iraultzaren aurretiko eta geroko Txinako langileen mugimendua eta Txinako Errepublikako Langile Alderdia, *Collected Papers of History Studies* (1): 63-86

diktaturaren aurkako ideologia zabaldu zutela aldarrikatu zuen, zientzia sozialen akademiaren geldiaraztea aginduz (Walder, 2015: 185). Honek Historiaren argitalpenen hutsunea eragin zuen. Hortaz, hurrengo fasera, laugarrenera egingo dugu jauzi.

Fase honetan, orain arte argitaratutako analisi historiografikoetan zehaztu gabeko zenbait ezaugarri deigarri zeuden. Lehenik, bigarren faseko (1949-1966) historialariak berriro nabarmendu ziren laugarren fase honetan (1977-1989/1991). Bigarrenik, Xinhaiko Iraultzaren inguruko lanak berrikusten hasi ziren, baina oraindik jarrera kritikoa hartu gabe. Hirugarrenik eta azkenik, emakumeen historiaren ikerketa ere deigarria zen.

Hasteko, zera aipatu beharra dago: analisi historiografikoa duten historialariek (Zhang, 1999: 227; Cui, 2015: 135) berreskurapen eta hazkundearen garaitzat hartzen dute, baina fenomeno hori bultzatzen zuten historialarien ezaugarriak zehaztu gabe. Autoreen zerrendan antzeman daitekeen bezala, fase honetako historialarien artean, aurreko fase historiografikotzat hartzen den garaikoak nabarmentzen ziren, Zhang Kaiyuan, Wu Yannan eta Hu Shengwu barne. Eta materialismoa marko bakar gisa erabiltzen jarraitzen zuten 1911ko Iraultza aztertzeko. Adibidez, Zhangek (1978: 35), kapitalismoaren garapenean eta klase sozialen bereizketan oinarrituta, Aliantza Iraultzailea “iraultzaile burgesen” erakundea zelako nozio zaharra justifikatzeko froga gehiago bildu zuen. Wuk (1978) XX. mendearen hasierako nekazariak parte hartu zituzten altxamenduen berri eman zuen, baina “iraultzaile burgesen” lidergotasuna ahaztu gabe <sup>30</sup>. Eta, Hu (1986) Sunek Errepublikako presidentetza Yuan Shikairi utzi ziolaren arrazoiak bilatzen saiatu zen, Txinara iritsi berri ziren iturri ingeles batzuk kontuan hartuta. Arrazoiaren artean, Yuanek inperialista ingelesak babesa zuenez, hura Errepublikaren burua izango balitz, ingelesak

<sup>30</sup>Beste era batean esanda, nekazariak 1911ko Iraultzan izandako papera aztertu arren, iraultza burges bat zela kontsideratu zuen.

ere Errepublikaren alde jarriko ziratekeela aipatu zuen. Aldi berean, atzerritar potentzien esku-hartze politiko eta ekonomikoa kritikatu zuen, 1949 eta 1966 bitarteko historialariek bezala.

Bigarrenik, ikerlariak Sunen analisi historiografikoa egiten hasi ziren. Mak, Lin-ek eta Huang-ek (1980) 1949tik argitaratutako Sunen inguruko auzi eztabaidagarriak (adibidez, iraultza egiteko asmoaren sorrera) eta ikerketen egoera laburbildu zuten, baina bilakaera historiografikoa zehaztu gabe. Duan-ek eta Zhou-k (1985) antzeko analisia egin zuten. Bi lanetan, bi ezaugarri amankomun aurkitzen dira. Alde batetik, materialismoaren zientifikotasuna azpimarratzen da historia aztertzeke beharrezko marko teoriko gisa. Eta bestetik, politikari garrantzitsuek, hala nola, Maok eta Leninek Sun eta bere iraultzari buruz egindako balorazio positiboak aipatzen dira, Sunen irudia goraiatuz. Hortaz, orain arteko analisi historiografikoak ez ziren kritikoak, 1990ko hamarkadaren amaieran Zhang Kaiyuanekin (1999) egiten hasi zirenak ez bezala<sup>31</sup>.

Hirugarrenik eta azkenik, mendearen hasierako emakumeei buruzko lanak agertu ziren, emakumeen historiaz idazten zutenen eskutik. Xu Huiqik (1981) Errepublikaren hasieran emakume Tang Qunyin feminista eta Emakumezkoen Parte-hartze Politikorako Aliantza<sup>32</sup> aztertu zituen. Propaganda politikoa egin zuen; izan ere, bere konklusioaren arabera, lehendabiziko Errepublika kontserbadorea zen, feminismoaren alde ez zegoen<sup>33</sup> eta, emakumeen askatasuna soilik posible zen baldin eta langileen alderdiaren -Txinako Alderdi Komunistaren- lidergotasuna onartu bazuten (Xu, 1981: 36).

Halaber, Liu Jucai (1986) gizonezko historialariak garai hartako

<sup>31</sup>Izan ere, Zhangek eta ondorengo beste batzuek Xinhaiko Iraultzaren ikerketen gabezi edo sakondu gabeko aztergaiak aipatu zituzte.

<sup>32</sup>Erakunde politiko feminista hau 1912an sortu zen, Tang Qunyinek eta beste feministek bultzaturik eta hainbat tokitako elkarte feminista bildurik. Bere eskakizun politikoa ukatua izan zen.

<sup>33</sup>Sun Yat-sei feministen eskakizunaren alde zegoen; baina gobernuko beste politiko kontserbadore asko, aldiz, kontra.

aldizkari femenisten bilakaera (1898-1918) aztertu zuen. Aurrekoak bezala, komunismoaren garrantzia azpimarratu nahi zuen. Izan ere, bere (1986: 148-150) konklusioaren arabera, 1911ko Iraultzaren (“Iraultza Demokratiko Zaharra”) gainbeherarekin (1914), mugimendu feministak ere behera egin zuen eta, 1919tik komunistek aurrera eramandako “Iraultza Demokratiko Berriarekin” berriro gora egingo zuen. Testuinguru historiografikoari erreparatuta, Du Fangqin <sup>34</sup> (2008: 5-6) emakumezko historialariak esan bezala, 1980ko hamarkadan emakumeen historiaren ikerketaren berpiztu <sup>35</sup> zen, baina ikerketa lanetan komunismoaren garrantzia azpimarratu eta, marko teoriko gisa, materialismoa nabarmentzen zen.

#### 3.4. Bosgarren fase historiografikoa (1989/1991tik)

Xinhaiko Iraultzaren bosgarren eta azken faseari dagokionez, historialariek 2011ra arte kaleratutako lanak kontuan hartu dute, ondorengo urteetako lanak fase berekoak al diren zehaztu gabe. Aukeratutako 1989 eta 2011 bitarteko hamar bat artikuluak irakurrita, ezaugarri historiografiko berri bat baino ez da antzematen: historialariak oraindik ez direla emakumeen historiaren ikerketa nabarmenen existentziaz ohartu.

1990ko hamarkadan Xinhaiko Iraultzaren testuinguruko emakumeei lanak argitaratzen jarraitu zituzten. Xu Huiqik (1994), emakumezko historialariak, garai hartan mendebaldeko kulturaren eragina jasan zuten emakumeek txinatar kulturaren elementu matxistari kontra egiteko erabiltzen zituzten argudioak aztertzen zituen. Lan honetan ez zuen komunismoaren garrantzia aipatu, baina materialismoa erabiltzen jarraitu zuen marko gisa. Zou Xiaozhan-ek (1997: 290-292) *Nanjingeko Behin-behineko Gobernuaren eta Behin-behineko Konstituzioaren zenbait auziri buruz* lanean, aztertu

<sup>34</sup>Generoaren historia sozialean aditu da.

<sup>35</sup>"Berpizkundea" bezala kontsideratzen du 1920 eta 1930ko hamarkadetan jadanik ikerketen bolada egon izan zelako. Eta, 1949 eta 1978 bitartean, ikerketen geldialdia egon zen, komunisten gobernuaren pean emakumeak jadanik askatuak zirela kontsideratu baitziren.

zuen lehendabiziko auzia Errepublikako emakumeen parte-hartze politikoaren eskubidearen gabezi juridikoa zen.

Hortaz, politikaren historia idazterako orduan emakumeen presentzia kontuan hartu zuen. Ezaugarri hau bat dator Duren (2008: 7) analisi historiografikoarekin; honen arabera, 1990ko hamarkadaren erdialdetik<sup>36</sup>, emakumeen historia era independente batean aztertu ordez, gainerako gai espezifikoei -adibidez, ekonomiaren eta gizartearen historian- integraturik aztertzen zen.

### 3.5. Azken urteetako lanak (2012-2018)

1911ko Iraultzaren analisi historiografiko berriek 2011ra arteko lanak kontuan hartzen dituzte. Hortaz, azterketa historiografiko hau osatzeko, 2012 eta 2018 bitartean argitaratutako lanak berrikusiko ditugu, azken fasearen ezaugarri nagusiekin eta guk antzemandako ezaugarri berri batekin (emakumeen historia) konparatu bitartez, jarraikortasunak ala aldaketak egon diren ikusteko.

Lehenik, emakumeen historiaren analisiaren jarraipena antzematen da. Guo Jianpeng-ek (2012)<sup>37</sup>, Hegoaldeko Sozietateko<sup>38</sup> emakumezko intelektuaren mugimendu feminista aztertu ditu. Lan honetan materialismoa erabiltzen da oinarri gisa, klase borroka aipatzen baita. Eta Jian Ziyak (2013)<sup>39</sup>, semiotika kulturaletik abiatuta, emakumezkoek parte hartutako komunikabideak emakumeen irudi berria nola eraiki eta askatasun ideologikoa hedatzen nola lagundu zuen ikertu du. Hortaz, estrukturalismoa erabiltzen da marko teoriko gisa.

Bigarrenik, gizarte zibila aztertzen jarraitu dute. Komunikabidearen historialari Huang Chaoqin-ek (2015) Zhejiang probintziako aldizkaritza eta

<sup>36</sup> Testuinguru historiografikoari dagokionez, 1990ko hamarkada emakumeen historiaren ikerketen hazkunde handiaren garaia zen.

<sup>37</sup>Literaturaren historia aztertzen duen gizezkoa

<sup>38</sup>Hegoaldeko Sozietatea (1909-1923) literatur erakunde bat zen.

<sup>39</sup>Txina modernoko komunikabide (prentsa barne) eta generoaren historia aztertzen du.

editore progresistak aztertu ditu, komunikabidearen eta iraultzaren arteko erlazio estua nabarmenduz. Yu Heping-ek (2015) merkatariek finantzatutako unibertsitate pribatuei buruz ikertu du, 1911ko Iraultzak goi-mailako hezkuntzaren modernizazioa eta pribatizazioa bultzatu zituela azpimarratuz.

Hirugarrenik, historia sozialaz idazten jarraitzeari ekin diote. Li Deying-ek<sup>40</sup> eta Zhang Yang-ek<sup>41</sup> (2015), lapurretaren kasu zehatz batetik abiatuta, 1911ren inguruko ezegonkortasun politikoaren testuinguruko ordena publikoa aztertu dute, tokian tokiko ahalegin ofizialak egon arren, gizartea ordenarik gabekoa zela nabarmenduz. Zhang Guopeng eta Li Yongsheng (2017), historiak “kontakizun makrohistorikotik irten” behar duelako kontzientziarekin, Wuchangeko Altxamendua gertatzen zenean herritarrek zer jarrera zuten aztertzen saiatu dira, errepublikanismoa ezagutu ez zutela eta iraultzatik kanpo zeudela ondorioztatuz.

Laugarrenik, Xinhaiko Iraultzaren historia posmodernoaren jarraipena ere badago. Wu Yuanyuk (2017), emakumezko antropologoak, heriotzaren kulturatik abiatuta, Huanghuagangeko 72 Martirio Iraultzaileen oroitzapenerako ipini zuten garezurren esanahia bilatu du, iraultzaile ausart horien heriotza tragikoa eta bizitzaren balioa erakutsi nahi zutela ondorioztatuz. Era antzekoan, Yuan Chen (2018) historialariak, herritarrek tokiko kronika, ahozko kontaketa eta kanta herrikoien bitartez Wen Chaozhong martirioaren irudi heroikoa eraikitzen zutelako berri eman du.

Bosgarrenik eta azkenik, historialari batzuek interpretazio materialistaren aurka egiten jarraitu dute. Adibidez, Wang Qisheng-ek (2013) Xinhaiko Iraultza, Iparralderako Espedizioa (1926-1928) eta Iraultza Komunista (1949) hiru iraultzek Txinako Iraultza deituriko gertaera politikoa osatu zutela dio eta “Iraultza Demokratiko Zaharra” (burgesa) eta “Berria” (komunista) bezalako interpretazio materialistei uko egin die. Izan ere, bere

<sup>40</sup>Historia sozial eta ekonomikoa aztertzen duen emakumea da.

<sup>41</sup>Soziologia historikoa aztertzen duen gizona da.



---

arabera, 1911ko Iraultzaren lidergoak ez ziren burgesak, hezkuntza berria edota mendebaldekoa jasandako intelektualak baizik.

#### 4. ONDORIOAK

Lehenengo fase historiografikoan (1911-1949), orain arte egindako analisisien arabera, alde batetik, ekarpen nagusiak iraultzaileek beraiek hasieratik eskainitako memoriak eta marxistek 1930ko hamarkadaren amaieratik egindako ikerketa zientifikoaren hastapenak izan ziren. Hala ere, guk egindako berrikuspenaren arabera, gutxienez 1939tik, marxistak ez ziren politologoak eta ekonomialariak gai espezifikoen inguruko ikerketa akademikoak egiten ere saiatu ziren. Eta bestetik, 1928tik Kuomindangek Sun eta bere alderdiaren inguruko Historia ordotoxa bultzatzen zuen bere legitimitatea justifikatu nahi zuela defendatu dute berrikuskatzaile historiografikoek, zehaztasunik eskani gabe. Garaiko testuinguru ezegonkorrean kokatuta, 1912an gobernu errepublikarra eratzean eta 1945ean japoniarren aurkako gerra irabaztean bezala, barneko batasun politikoa lortu nahi zuela antzeman daiteke.

1949 lehen eta bigarren fase historiografikoaren arteko banaketaren unea zela defendatu dute. Hala ere, metodo materialistaren eta aztergaien (Sun eta honen ideologia barne) jarraipena kontuan hartuz gero, bi faseen arteko muga argia ez dela esan daiteke. Bigarren fase historiografikotzat hartutako garaian (1949-1966), hain zuzen, historiografia marxistaren bultzapen ofizialaren unean, 1911 inguruko atzerritar inperialismo kapitalista gaitzeztu zuten. Hau 1949an boterea hartu zuten komunistek bultzatu nahi zuten barneko banatasunaren oinarri izango litzateke, Kuomindangek egin bezala. Izan ere, Kuomindangen arabera batasuna Sunen inguruan eraikitzen saiatu zen; eta komunistena, berriz, komunismoaren etsai kapitalismoaren inguruan.

Laugarren fase historiografikoari (1977-1989/1991) dagokionez, lehenik, Xinhaiko Iraultzaren ikerketen hazkundera eman zela aipatu dute berrikuskatzaileek, bultzaitzaileen perfila zehaztu gabe. Gure berrikuspenaren ararabera, laugarren fase honetan, batez ere hasieran, zientzia sozialen geldialdia baino lehenagoko fase historiografikoko (1949-1966) historialari erlatiboki zaharrak nabarmendu ziren. Bigarrenik, berrikuskatzaileek 1980ko hamarkadako historialariek 1911 inguruko aniztasun ideologikoa erakutsi zutela aipatu dute. Ezaugarri hau 1949 eta 1966 bitartean jadanik agertu zen. Hirugarrenik eta azkenik, orain arteko analisi historiografikoetan emakumeen historiaren ikerketaz gutxi baino ez da aipatu. Berrikusi dugunez, 1980ko hamarkadaren hasieratik Xinhaiko Iraultzaren testuinguruko emakumeen historia ikertzen zen, mendearen hasierako aniztasun ideologikoaren testuinguruan pertsoania eta erakunde zehatz batzuek mugimendu feminista bai politikan bai gizartean bultzatu zutela erakutsiz.

Emakumeen historiaren ikerketa 1990ko hamarkadan egiten jarraitu zuten, hain zuzen, bosgarren eta azken fase historiografikotzat hartutako garaian (1989/1991tik). Halaber, azken urte hauetako (2012-2018) lanen ezaugarriak bat datoz bosgarren fasearekin, jarraipena adieraziz. Hau da, iraultza burgesaren izaeraren aurkako ebidentziak, historia soziala eta posmodernoak ikertzen jarraitu dute.

Beraz, Xinhaiko Iraultza aztergai bizia da eta bere bilakaera historiografikoa orain arte argitaratutako analisi historiografikoek erakutsitakoa baino konplexuago da. Are gehiago, 1911 eta 2018 bitarteko lanak berrikusita, zenbait ezaugarri historiografiko orokor aurkitzen dira. Lehenik, emakumeen historiaren ikerketa eta emakumezko historialarien parte-hartzea oraindik ez dira indartsuak. Bigarrenik, gutxienez 1928tik 1977ra arte, politikoez gehiegi esku hartu zuten historiaren idazketan,

Historia ordotoxoa (1928tik) eta marxista (1949tik) bultzatu zirelarik. Hala ere, 1990ko hamarkadatiko joera eta azken urte hauetako lanak berrikusita, aniztasun historiografikoa nabaria dela esan daiteke.

## BIBLIOGRAFIA

Bailey, Paul (2002): *China en el siglo XX*, Barcelona: Ariel Pueblos

陈贵宗 (1956): 辛亥革命时期东三省的革命运动, *史学集刊*, 2: 49-79 [Chen,

Guizong (1956): Ipar-ekialdeko hiru probintzien mugimendu iraultzaileak Xinhaiko Iraultzaren garaian, *Collected Papers of History Studies*, 2: 49-79]

陈孔立, 蔡如金, 楊国楨 (1962): 辛亥革命在福建, *厦门大学学报(哲学社会科学版)*, 2: 80-95 [Chen, Kongli, Cai, Rujin eta Yang, Guozhen

(1962): Xinhaiko Iraultza Fujianen, *Journal of Xiamen University: Arts and Social Sciences*, 2: 80-95]

崔志海 (2015): 新中国成立以来的辛亥革命史研究, *近代史研究*, 3: 134-153

[Cui, Zhihai (2015): Xinhaiko Iraultzaren historiaren ikerketak Txina berria sortuz gero, *Modern Chinese History Studies*, 3: 134-153]

杜芳琴 (2008): 三十年回眸: 妇女/性别史研究和学科建设在中国大陆的发展, *山西师大学报(社会科学版)*, 6: 4-11 [Du, Fangqin (2008):

Hogeita hamar urteko berrikuspena: emakume/generoaren historiaren ikerketa eta ikergaiaren eraketaren garapena Txina kontinentalean, *Journal of Shanxi Normal University (Social Science Edition)*, 6: 4-11]

段云章, 周兴樑 (1985): 建国以来孙中山研究述评, *近代史研究*, 1: 20-52

[Duan, Yunzhang eta Zhou Xingliang (1985): 1949z geroko Sun Yat-senei buruzko ikerketen historia eta balorazioa, *Modern Chinese History Studies*, 1: 20-52]

高劳编 (1925): 辛亥革命史, 上海: 商務印書館 [Gao, Lao (ed.) (1925):

*1911ko Iraultzaren historia*, Shanghai: The Commercial Press]

广州博物馆 (2006): 辛亥黄花岗起义, 上海: 上海古籍出版社 [Guangzhou

- Museum (2006): *Huanghuagangeko Altxamendua 1911an*, Shanghai: Shanghai Classics Publishing House]
- 郭汉民编 (2011): 湖南辛亥革命人物传略, 长沙: 湖南人民出版社 [Guo Hanmin (ed.) (2011): *Hunango Xinhaiko Iraultzako pertsonaien historia*, Changsha: Hunan People's Publishing House]
- 郭建鹏 (2012): 南社女社员与辛亥革命, 南京理工大学学报 (社会科学版), 3: 86-94 [Guo, Jianpeng (2012): Female members of the South School and the 1911 Revolution, *Journal of Nanjing Tech Unibersity (Social Science Edition)*, 3: 86-94]
- 何玉畴 (1959): 辛亥革命与资产阶级立宪派人, 兰州大学学报 (社会科学版), 0: 26-45 [He, Yuchou (1959): Xinhaiko Iraultza eta burges konstituziozaleak, *Journal of Lanzhou University (Social Science Edition)*, 0: 26-45]
- 胡漢民 (1922): 三民主義者之使命, 出版地不详: 出版社不详 [Hu, Hanmin (1922): *Hiru Herriaren Printzipioak defendatzen dituztenen eginbeharrak*, s.l.: s.n.]
- 胡绳武 (1955): 论中国资产阶级民主革命派的形成, 复旦学报, 2: 110-119 [Hu, Shenwu (1955): Txinako burges iraultzaile demokratikoen sorrera, *Fudan University Journal*, 2: 110-119]
- 胡绳武 (1987): 孙中山让位于袁世凯的历史环境. 历史研究, 1: 43-52 [Hu, Shenwu (1987): Sun Yat-sen-ek Yuan Shi-kai-ri presidentetza utzi ziotelaren testuinguru historikoa, *Historical Studies*, 1: 43-52]
- 黄朝钦 (2015): 风云激荡时代的报刊与人物风流——辛亥革命时期浙江的报业与报人分析, 浙江传媒学院学报, 2: 10-22 [Huang, Chaoqing (2015): Ezegonkortasunaren aroko aldizkariak eta pertsonaiak: Xinhaiko Iraultzaren garaiko Zhejiang-eko aldizkaritza eta idazleei buruzko ikerketa, *Journal of Zhejiang Institute of Medial Communications*, 2: 10-22]
- 简姿亚 (2013): 近代新母性神话的构建: 从身体解放到人格独立——以辛亥时期

- 女性媒介为中心的考察，*妇女研究论丛*，2：77-83 [Jian, Yazhi (2013): Construction of new contemporary myth of mothers: from liberation of the body to individual independence, a survey centred on women's media during the Xinhai period, *Collection of Women's Studies*, 2: 77-83]
- 金冲及（2011）：*辛亥革命研究论文集(上下)*，北京：生活·读书·新知三联书店 [Jin, Chongji (2011): *Xinhaiko Iraultzaren ikerketaren artikuluen bilduma (I-II)*, Beijing: SDX Joint Publishing Company]
- King Fairbank, John (1900): La transformación del orden imperial tardío, *Historia de China: Siglos XIX y XX*, Madrid: Alianza, 143-184
- King Fairbank, John (1996): *China, una nueva historia*, Barcelona, Andrés Bello
- 林友华（2001）：*林森评传*，北京：华文出版社 [Lin, Youhua (2001): *Lin Sen-ei buruz*, Beijing: Sino-culture Press]
- 林增平（1962）：*辛亥革命时期天地会的性质问题*，*学术月刊*，2：41-48 [Lin, Zengping (1962): 1911ko Iraultzaren garaiko Tiandi Elkartearen izaeraren auzia, *Academic Monthly*, 2: 41-48]
- 罗进（1996）：*孙中山在广州*，广州：广东人民出版社 [Luo, Jin (1996): *Sun Yat-sen Guangzhou-en*, Guangzhou: Guangdong People's Publishing House]
- 廉立之（1962）：*辛亥革命在山东*，*山东师范大学学报(人文社会科学版)*，0：3-19 [Nian, Lizhi (1962): Xinhaiko Iraultza Shandong-en, *Journal of Shangdong Normal University (Social Science Edition)*, 0: 3-19]
- 李德英，张杨（2015）：*从新津劫案看辛亥鼎革前后的基层社会秩序*，*近代史研究*，4：98-115 [Li, Deying eta Zhang, Yang (2015): Xinhaiko Iraultzaren garaiko ordena publikoa, Xinjin-go lapurretaren kasutik ikusita, *Modern Chinese History Studies*, 4: 98-115]
- 劉炳藜（1940）：*三民主義與中國革命*，出版地不详：中央週刊社 [Liu, Bingli (1940): *Hiru Herriaren Printzipioak eta Txinako iraultza*, s.l.: s.n.]

- 刘巨才(1986): 中国近代妇女报刊小史(1898—1918), *新闻与传播研究*, 2: 129-153  
 [Liu, Jucai (1936): Txinako Garai Modernoko emakumezkoen aldizkaritzaren historia labor bat, *Journalism & Communication*, 2: 129-153]
- 黎光(1957): 华侨工人华侨资本家在辛亥革命前的处境及其对辛亥革命运动的贡献, *东北师大学报(哲学社会科学版)*, 3: 204-218 [Li, Guang (1957): Txinatar langile eta burges inmigranteen egoera Xinhaiko Iraultza baino lehen eta Xinhaiko Iraultzaren mugimenduari egindako ekarpenak, *Journal of Northeast Normal University (Philosophy and Social Sciences)*, 3: 204: 218]
- 王奇生(2013): 高山滚石: 20世纪中国革命的连续与递进, *华中师范大学学报(人文社会科学版)*, 5: 96-106 [Wang, Qisheng (2013): On the succession of the twentieth century Chinese Revolution, *Journal of Central China Normal University (Humanities and Social Sciences)*, 5: 96-106]
- 吴雁南(1978): 略论一九〇一至一九〇五年间农民群众反帝反封建的斗争, *山西师大学报(社会科学版)*, 3: 60-70 [Wu, Yannan (1978): 1901 eta 1905 bitarteko nekazarien borroka anti-inperialista eta anti-feudala, *Journal of Shanxi Normal University (Social Science Edition)*, 3: 60-70]
- 马庆忠, 林飞鸾, 黄永祥(1980): 建国以来孙中山研究中几个问题的概述, *近代史研究*, 2: 256-265 [Ma, Qingzhong, Lin, Feiruan eta Huang, Yongxiang (1980): Txinako Herri Errepublikaren garaitiko Sun Yat-sen-i buruzko ikerketan dagoen zenbait auziren laburpena, *Modern Chinese History Studies*, 2: 256-265]
- 萧善因(1963): 近代女革命诗人秋瑾, *文学遗产*, A12: 169-177 [Xiao, Shangyin (1963): Garai Modernoko emakumezko olerkari iraultzaile Qiu Jin, *Literary Heritage*, A12: 169-177]
- 沈鹏年(1963): 反对用抽象的人道主义解释鲁迅的思想, *学术月刊*, 11: 9-21 [Shen, Pengnian (1963): Humanismo abstraktua Lu Xun-en ideologia azaltzeko erabiltzearen aurka, *Academic Monthly*, 11: 9-21]
- 石敬亭(1936): 辛亥灤州起義紀實, 出版地不详: 出版社不详 [Shi, Jingting

(1936): 1911ko Luanzhouko Altxamenduaren historia, s.l.:s.n.]

孙芳 (2013): 辛亥革命百年研究综述, *江西师范大学学报 (哲学社会科学版)*, 2: 95-110 [Sun, Fang (2013): Xinhaiko Iraultzaren ehungarren urteurrenean izandako ikerketen berrikuspen orokorra, *Journal of Jiangxi Normal University (Philosophy and Social Sciences Edition)*, 2: 95-110]

海峡两岸出版交流中心, 华中师范大学中国近代史研究所 (2011): 海峡两岸辛亥革命著述书目: 1911-2011, 北京: 九州出版社 [Taiwango Itsastartearen Bi Aldeetako Argitalpenen Inguruko Elkarrizketarako Zentroa, Institute of Modern Chinese History (Central China Normal University) (2011): *Taiwango Itsastartearen bi aldetan argitaratutako 1911ko Iraultzari buruzko liburu nabarmenen zerrenda: 1911-2011*, Beijing: Jiuzhou Press]

Walder, Andrew (2015): Toward the Cultural Revolution, *China under Mao, a revolution derailed*, London: Harvard University Press, 180-199

武洵宇 (2017): 辛亥祭奠的死亡表达——黄花岗七十二烈士墓骷髅符号释读, *近代史研究*, 2: 52-68 [Wu, Huanyu (2017): Heriotzaren adierazpena Xinhaiko Iraultzako hildakoentzako oroitzapenean: Huanghuagang-eko 72 Martirioen Hilerriko garezurren sinboloaren analisisa, *Modern Chinese History Studies*, 2: 52-68]

徐辉琪 (1981): 唐群英与“女子参政同盟会”——兼论民初妇女参政活动, *贵州社会科学*, 4: 30-37 [Xu, Huiqi (1981): Tang Qunying eta Emakumezkoen Parte-hartze Politikorako Aliantza, eta emakumezkoen parte-hartze politikoari buruz, *Guizhou Social Sciences*, 4: 30-37]

徐辉琪 (1994): 辛亥革命时期妇女的觉醒与对封建礼教的冲击, *近代史研究*, 4: 127-143 [Xu, Huiqi (1994): Xinhaiko Iraultzaren garaiko emakumezkoen kontzientzia eta tradizio feudalarentzako inpaktua, *Modern Chinese History Studies*, 4: 127-143]

- 严昌洪，马敏（2000）：20世纪的辛亥革命史研究，*历史研究*，3：136-151  
 [Yan, Changhong eta Ma, Min (2000): Xinhaiko Iraultzaren historiaren ikerketak XX. mendean, *Historic Research*, 3: 136-151]
- 虞和平（2015）：辛亥革命对教育变革的影响——以民国前中期商人捐办大学为中心，*史学月刊*，6：66-76 [Yu, Heping (2015): The impact of the 1911 Revolution on education reform: focusing on the businessmen's donation for universities during the early and middle period of the Republic of China, *Journal of Historical Science*, 6: 66-76]
- 苑琛（2018）：辛亥烈士形象的地方建构——以川鄂边温朝钟起义为例，*北京社会科学*，11：25-35 [Yuan, Chen (2018): Local image construction of martyr in Revolution of 1911: An examination on Wen Chaozhong's Revolt in the boundary area of Sichuan and Hubei Province, *Social Sciences of Beijing*, 11: 25-35]
- 张国鹏，李永胜（2017）：武昌首义初起时民众的境遇及反应，*经济社会史评论*，3：99-109 [Zhang Guopeng eta Li, Yongsheng (2017): Herritarren egoera eta oihartzuna Wuchangeko Altxamendua ari zenean, *Economic and Social History Review*, 3: 99-109]
- 赵金钰（1964）：论章炳麟的政治思想，*历史研究*，1：31-46 [Zhao, Jinyu (1964): Zhang Binglin-en ideologia politikoari buruz, *Modern Chinese History Studies*, 1: 31-46]
- 章开沅（1999）：50年来的辛亥革命史研究，*近代史研究*，5：222-244 [Zhang, Kaiyuan, 1999: Xinhaiko Iraultzaren historiaren ikerketak azken 50 urtetan zehar, *Modern Chinese History Studies*, 5: 222-244]
- 章开沅，田彤（2010）：新世纪之初的辛亥革命史研究（2000-2009），*浙江社会科学*，9：89-94 [Zhang, Kaiyuan eta Tian, Tong (2010): Xinhaiko Iraultzaren historiaren azterketak mende berriaren hasieran (2000-2009), *Zhejiang Social Sciences*, 9: 89-94]
- 章开沅（1978）：论同盟会的性质及其内部分歧，*历史研究*，11：34-47



---

[Zhang, Kaiyuan (1978): Aliantza Iraultzailearen izaera eta barneko zatiketari buruz, *Historical Research*, 11: 34-47]

鄭鶴聲 (1954): 試論孫中山思想的發展道路, *文史哲*, 4: 19-30 [Zhen, Hesheng (1954): Sun Yat-senen ideologiaren bilakaerari buruzko analisiaren saiakera, *Journal of Literature, History & Philosophy*, 4: 19-30]

邹小站 (1997): 关于南京临时政府与《临时约法》的几个问题, *近代史研究*, 3: 290-297 [Zou, Xiaozhan (1997): Nanjingeko Behin-behineko Gobernua eta Behin-behineko Konstituzioari buruzko zenbait auzi, *Modern Chinese History Studies*, 3: 290-297]